

## Euskara, Euskal Herriaren nortasunean



Juan San Martín  
Euskaltzaina

**F**ranco-ren diktadurapean  
geuden eta maiz esaten ziguten:  
"Haben en cristiano".

Hara hemen hitz batzuk sarrera gisa.

Nire euskaltzaletasuna nola sortu zen adierazteko. Madrilera eraman nindutenean soldaduzkara eta gaztelerarik ez zekitenekin itzultzaile egin beharra izan nuen. Aldi hartan, harriturik nengoen haiei ematen zitzaien tratu txarraz.

Gaztetxotatik irakurzale eta mendizale zen honek, euskarari esker, atek beti zabalik aurkitzen zituen baserri eta artzai txaboletan.

Horregatik, soldaduzkan euskalduneri ematen zitzaien tratu txarraz piztu zidan nire barnegogoa, mundu zabalera begira jarriz, nire herri eta nire hizkuntzatik.

Soldadutzatik itzultzean ordea, trenez edo autobusez ibiltzen ginen mendizale taldea beti euskaraz mintzatzen ginen. Baina, Franco-ren diktadurapean geunden eta maiz esaten ziguten: "*Hablen en cristiano*".

Eta nire erantzuna: *No se arameo*.

Besteak ordea: *Aquí estamos en España y se habla español*.

Orduan erantzuten nien: *Yo estoy hablando la lengua más antigua de España. No soy separatista, pero usted debe ser un separador*.

Aldi hartan euskal gramatika ikasteari emana nenbilen, gazteleraz ez-ezik euskaraz idazten ere bai.

Mundua berez da orotarikoa eta bakoitzari on zaio, besteak ukatu gabe, norberaren hizkuntzatik mundu zabalera begiratzea. Hori bai da unibertsaltasuna.

**G**ure egunotan maizegi entzuten dut abertzaleok euskara politizatu dugula. Hortaz ari direnek, argi ikusten denez, nonbait ez dakite euskai abertzaleen alderdia sortu baino lehenagotik zegoela hizkuntza politizaturik.

Hortarako eredugarri hartua nuen XIX. mendean Suizan onarturiko Konstituzioa. Retiko edo romantx mintzatzen zirenek gerturik zeuden berena utziz alemanera, frantsezera edo italiara ikasteko, beste kantoietako herrialdeekin hobeto ulertzeko. Baina, Bernako konfederakuntzaren gobernutik agindu zieten lehen-lehenik guraso hizkuntza ikas eta erabiltzea eta besteekiko harremanerako, nahi zuenak ikas zezala konfederakundeko beste hizkuntza bat. Adierazpen eredugarria benetan.

Gaur egun Nafarroako egoera ikusirik, abertzaleon aldetik beharrezkoa ikusten dut bi libururen zabalkundea egitea. Alde batetik Arturo Campión-en *Nabarra en su vida histórica* eta, bereziki, bere garaian artxibaria izan zen José Yanguas y Miranda zenaren *Historia de la conquista del Reino de Navarra por el Duque de Alba*, 1843an Iruñean argitaratua.

Ni neu, horregatik arduratu izan naiz giza-eskubideen aldetiko arrazoiak jartzen ondoko idazki labur honetan.

\*\*\*\*\*

Gure egunotan maizegi entzuten dut abertzaleok euskara politizatu dugula. Hortaz ari direnek, argi ikusten denez, nonbait ez dakite euska abertzaleen alderdia sortu baino lehenagotik zegoela hizkuntza politizaturik Frantzia eta Espainiako erregeen aldetik. Gai hortaz nahikoa argibide eman izan dut zenbait artikulutan eta baita ere igaz argitaratu nuen nire *Giza eskubideen inguruan* (2000) deritzan liburuaren 54 eta 69. orrialdeetan.

Oroi Frantziako Errege Luis XII.ak, 1510. urteko ekainean, ordenantza bidez agindu zuela epaiketa guziak biztanle bakoitzari bere hizkuntzan egiteko. Erabaki hori, bere ondorengo Frantzisko I.ak, 1531. urtean berretsi zuen. Baina, zortzi urte geroago ezabatuz suntsitu zuen, euskararekin batean Frantzia guziko hizkuntzen etorkizuna larritasun ilunetara bultzaraziz.

Espanian ordea, eskola guzietan gaztelera soilik irakastea, Carlos III.ak bere *Real Cédula de 23 de junio de 1768* haren aginduz behartu zuen; baina horren aurretik kontsigna bezala behartzen zen. Lehen lehenago, Errege Katolikoen garaiko Gurutzadetan judu eta arabiarren aurka aldarrikatzen zuten "Hable en Cristiano" esaldia. Nork pentsa zezakeen arameera ez dakitenek euskaldunoi ere esaldi hori erantsiko zigitela? Francoren diktadura madarikatu haren denboran, euskaldunok hamaika aldiz entzun beharra izan genuen.

Beraz, agindu horiek, lehen abertzale alderdia sortu zuen Sabino Arana jaio baino lehenagokoak ditugu. Zeren hizkuntzak, izatez, herri baten mintzabide naturalak bai dira politikak asmatu baino lehenago-tik. Adibidez, Nafarroako erresuman, gehienbat latina erabiltzen zen idazkera ofizialetan eta, 1167. urtean, Iruñeko apezpiku zen Petrus II.ak *Lingua Navarrorum* deitzen zion euskarari. Horren berriak nahikoa garbi eman bai nituen aipatu dudan *Giza eskubideen inguruan* deritzan liburu horren 67-68. orrialdeetan, eta "*Lingua Navarrorum*-en zoritxarra edo giza eskubiderik eza" izenburuzko kapitulua 73-83. orrialdeetan.

Europako Batasunak, "Hizkuntzen Urtea" izendatu du 2001garren hau, hizkuntz aniztasuna Europako ondarearen aberastasunik funtsezkoenetako bat dela eta etorkizunean ere hala izan behar duela adieraziz.

**Euskara, Euskal Herriaren nortasunik bereziena bai dugu. Horregatik, beste hizkuntzak ukatzeke, gure hau euskaldunok erabili eta edonorren aurrean errespetarazi beharra dugu.**

Izan ere, euskara, Euskal Herriaren nortasunik bereziena bai dugu. Horregatik, beste hizkuntzak ukatzeke, gure hau euskaldunok erabili eta edonorren aurrean errespetarazi beharra dugu.

Hori kontutan izanik aurkeztu nuen Euskaltzaindian "Hizkuntza, hiztunen giza eskubideen arabera" zeritzan txosten hura (ikus Euskera, XLIV, 1. alea (1999) 979-983. orr.).

Txosten horretarako baliatu nintzen Nazio Batuen Erakundeak (ONU-k) 1948ko abenduaren 10ean agertu zuen *Giza eskubide guz-tien Aitorbizuna* delakoak eskaintzen zituen arauetaz. Bere lehen Artikuluak argi eta garbi zioen: "*Gizon-emakume guztiak aske jaiotzen dira, duintasun eta eskubide berberak dituzteia; eta ezaguera eta kontzientzia dutenez gero, elkarren artean senide legez jokatu beharra dute*".

Bigarren Artikuluaren lehen zatiak dioenez: "*Gizaki orori dagozkie Adierazpen honetan adierazitako eskubide eta askatasunak, eta ez da inor bereziko arraza, larru-kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, politikako edo bestelako iritzia, sorterrria edo gizarteko jatorria, ekonomi maila, jaiotza edo beste inolako gorabeheretik*".

Eta hogeita seigarren Artikuluaren hirugarren zatian dakar beste honako hau: "*Gurasoek lehentasunezko eskubidea izango dote seme-ala-bei emango zaien hezkuntza mota aukeratzeko*".

Gero, horren ondorioz noski, Unesco arduratu zen lan sakon bat gertatzen, soziologo, hizkuntzalari eta pedagogoak bilduz eta elkarren artean hizkuntzen arazoa aztertuz, erabakiak argitaratu emateko,

**G**iza eskubideak diren aldetik,  
Euskaltzaindiarentzat ez-ezik,  
euskaldun guztiontzat ere oso  
baliagarriak dira ONU eta  
Unesco-ren arau horiek.

gomendio gisa: *L'emploi des langues vernaculaires dans l'enseignement*, 1953. urtean liburuxka batean argitaratzen. Zoritxarrez, Franco zen Espainian agintari eta hemen ez zen izan mezu haren zabalkun-dea egiteko erarik.

Giza eskubideak diren aldetik, Euskaltzaindiarentzat ez-ezik, euskaldun guztiontzat ere oso baliagarriak dira ONU eta Unesco-ren arau horiek. Eta orain, baliagarriagoak iruditzen zaizkit Europako Batasunak 2001. hau "Hizkuntzen Urtea" izendatu denez gero.

Badugu gai hontaz zer eginik eta euskaldunoi dagokigu hoietaz baliatuz aurrera begira bide egokiak hautatuz jarraitu beharra.